

Euskadiko Ekintzailetzaren Erakundearteko Planaren (2024ko EEP) 2022ko balantze-txostena

2022ko maiatza



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



EDUKIA:

1. LABURPEN EXEKUTIBOA.....	2
2. EUSKAL EKINTZAILETZAREN EGOERA 2022 ALDIAN	3
2.1 EKINTZAILETZA	3
2.2 EKINTZAILEAREN PROFILA	6
3. 2024KO EEP-AREN 2022KO AURRERAPENA.....	7
3.1 EKINTZAILETZAREN EUSKAL LEGEAN JASOTAKO HELBURUETAN EGINIKO AURRERAPENA	9
3.2 AURREKONTUAREN AURRERABIDEA	10
3.3 ADIERAZLEEN AGINTE-KOADROA	11
3.4 2024KO EEPKO ARDATZ BAKOITZEAN ZENBAT EGIN DEN AURRERA	13

1. LABURPEN EXEKUTIBOA

Indarrean dagoen “Ekintzaitzaren Erakundearteko Plana EEP 2024 – Gure ekonomia eraldatuz” planaren “**2022ko Jarraipen txostena**” da honako dokumentua. Proiektu ekintzaile berriak sortzeak lehentasuna izaten jarraitu du Euskadin, ekonomia-jarduera berria sortzea azkartuko duen abiapuntu gisa, eta testuinguru hori islatzen du txostenak.

Horretarako, ekintzaitzaren euskal ekosistemako eragile publiko eta pribatuek ekintzaitzari laguntzeko programa, ekimen eta tresna ugari jarri dituzte hainbat kolektiboren eskura, 2024ko EEPren jarduera esparru estrategikoaren baitan. Laburbilduz, 2022an:

- Euskal ekosistemaren osasuna, orokorrean, ona dela erakutsi zuten **ekintzaitzaren adierazle nagusiek**. Hala, pandemiaren aurreko urteetako ekintzaitza-jardueraren antzeko maila du Euskadik.
- **Ekintzaitza-jarduera:** ekonomiaren eta enpleguaren bilakaerarekin bat etorriz, 2022an hazi egin zen alta egoeran zeuden pertsona autonomoen kopurua, eta egonkortu egin zen alta egoeran zeuden enpresa berrien datua (alta-baja saldo apur bat negatiboarekin). TEA apur bat jaitsi zen 2021arekin alderatuta.
- **Ekintzailearen profila:** beste urte batez, ekintzaileen profila honelakoa zela baieztatu zen: helduak, trebatuak eta ekintzaitzarako beharrezko gaitasunak dituztela diotenak. Porrot egiteko beldurrak behera egin du, eta areagotu egin da aukerak dauden pertzepzioa.
- **2024ko EEPren aurrerapena:**
 - **Aurrekontu-betearazpena:** ekintzaitzari laguntzeko programa eta ekintzetarako eragile publikoek onartutako aurrekontuaren % 113 gauzatu zen 2022an. 2024ko EEPko bederatzi ardatzetan kokatzen dira programa eta ekintza horiek. Jarduera-aurreikuspenek betetze maila oso altua izan zuten orokorrean, eta hainbat programak, inbertsio funtsek eta egiturak **aparteko diru-hornidurak** izan zituzten, eta horrek azaltzen du emandako datua (aurrerago xehetasun gehiago).
 - **Programen eta ekimenen aurrerapena:** 2024ko EEPn aurreikusitako 770 ekintza baino gehiago **planifikatu bezala** gauzatu ziren aurreikusitako proiektu eta programa gehienetan. Gainera, proiektu kolaboratibo berri nabarmenak jarri ziren martxan, hala nola Up Euskadi plataforma.

Jarraian, 2022ko ekitaldiari dagozkion adierazle eta ondorioen xehetasunak aurkeztuko ditugu. Hori guztia Euskadiko ekintzaitzaren ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatuen gardentasuna eta ebaluazio partekatua egiteko ekintzaren parte da.

2022ko balantzea

Inpaktuaren adierazleak:

- 3.000 enpresa berri baino gehiago (alta-bajen saldoa: -325)
- % 23 hazi da autonomoen Gizarte Segurantzako alden kopurua
- Ekintzaitza-tasa guztira (TEA): % 4,9
- Porrot egiteko beldurra: % 65,6tik % 61,5era jaitsi da.
- Ekintzaitzarako aukeren pertzepzioa: % 16,5etik % 34,3ra igo da.

2024ko EEPren betetze mailaren eta jardueraren adierazleak:

- 770 ekintza baino gehiago martxan
- Aurrekontu goreneko urtea: 85M onartuta eta 96M gauzatuta
- Aparteko diru-hornidurak > 20M
- % 113ko aurrekontu-betearazpena (% 96 aparteko ekintzarik gabe)

2. EUSKAL EKINTZAILETZAREN EGOERA 2022 ALDIAN

Jarraian, **2024ko EEPa indarrean izan den bigarren urtean euskal ekintzaitzak egin dituen aurrerapen nagusiak** xehetasunez aurkeztuko dira.

2.1 Ekintzaitza

Ekonomia bateko ekintzaitza-jarduera prozesu globaltzat har daiteke, honakoak barne hartzen dituena: ideiaren sorrera edo ekiteko asmoa, enpresa sortzea eta azeleratzea, sendotzea, proiektua uztea edo eskualdatzea.

Hona hemen ekintzaitza neurtzeko **adierazle nagusiak**:

1. Pertsona autonomoen alta (iturria: Gizarte Segurantzza).
2. Enpresa berrien sorrera (iturria: EIN).
3. Enpresen sorrera garbia (iturria: Confebask).
4. Ekintzaitza osoaren tasa (TEA) eta proiektu ekintzaileen biziraupen-tasak (GEM txostenak neurtuak).


Horiek guztiak Ekintzaitzaren Erakundearteko Mahaiak aldizka ebaluatutako adierazleak dira, eta 2022ari dagozkion datuak aurkeztuko ditugu jarraian.

a) Autonomo berriak

Alta eman zuten autonomoen kopurua igo egin zen 2022an, eta pandemia aurreko maila gainditu zuen. **27.931 autonomok eman zuten alta guztira Euskadin**, eta 2017-2019 aldian urtean batez beste 27.000 autonomo izan ziren.

1. irudia. Euskadin alta emanda dauden autonomoak

Autonomoen alta-kopurua Gizarte Segurantzza; 2006-2022 aldia




*UHTK: urtez urteko hazkunde-tasa konposatua. Iturria: EIN

b) Enpresa berriak

2022an, guztira, 3.055 enpresa sortu ziren, 2021ean baino % 2,6 gutxiago, baina mantendu egin zen pandemiaren aurreko urteetako joera, hau da, urtean 3.000-3.100 enpresa sortzearen joera.

2. irudia. Euskadin sortutako enpresak

Enpresa-kopurua; 2006-2022




*UHTK: urtez urteko hazkunde-tasa konposatua. Oharra: sortutako enpresen kopuruaren barnean daude sozietate anonimoak, mugatuak, kolektiboak eta komanditarioak. Iturria: EIN

c) Enpresen sorrera garbia

Euskadiko enpresen kopuru garbia jaitsi egin zen 2022an, eta 57.820 enpresa zeuden aktibo guztira. 325 enpresako saldo negatiboarekin itxi zen urtea (enpresen alden eta bajen arteko saldoa).

3. irudia. Enpresen dinamismoa. Enpresen alden eta bajen saldo garbia

Enpresa-kopurua; 2008-2022




Iturria: Confebask, Gizarte Segurantzaren datuetatik abiatuta

2022aren amaieran, 57.820 enpresa zeuden Gizarte Segurantzaren inskribatuta, pandemiaren aurretik, 2020ko otsailean, baina % 1,8 gutxiago soilik, baina **2020ko apirilko gutxienekoa baino 1.034 gehiago.**

4. irudia. Gizarte Segurantzaren inskribatutako enpresak

Enpresa-kopurua; 2008-2022



Iturria: Confebask, Gizarte Segurantzaren datuetatik abiatuta

d) Ekintzaitzaren ezaugarriak azken GEM txostenaren arabera


GEM txostenak aukera ematen du Euskadiko ekintzaitzaren egoera ikuspegi globaletik balioztatzeko, herrialdeen artean aldera litezkeen ekintzaitzaren adierazleak ezartzen baititu. Ekintzaitza Tasa Totalaren (TEA indizea) arabera, **Euskadiko biztanleen % 4,9k negozio berri bat martxan jartzen edo kudeatzen parte hartu zuen 2022an.**

Nazioartearekin alderatuta, Italiaren (% 4,8) gisako **herrialde garatuen** eta Nafarroaren (% 5) gisako eskualdeen **antzeko emaitzak izan zituen Euskadik**, baina oraindik ere urrun dago Europako eta herrialde aitzindarietako (esaterako, Herbehereak edo Erresuma Batua) batezbestekotik.

5. irudia. TEA indizearen bilakaera

TEA (Ekintzaitza Osoaren Tasa) ehunekoa; 2004-2021

TEA indizearen bilakaera
Ekintzaitza Osoaren ehunekoa, 2004-2021



Iturria: Azken GEM txostena


TEA indizea zehatzago aztertuta, nabarmengarria da:

- **Ekintzailtza ez berritzailea** izan zen nagusi (% 73,8).
- **Produktu edo zerbitzu berritzailea duten enpresen kopurua murriztu egin zen** (- % 6,6).
- Abiarazitako negozioen uzte-tasa % 1,8ra igo zen aurreko urtetik eta, hala, **itxieren tasa garbia % 1,3koa izan zen.**
- **Datozen bost urteetan lanpostu berriak sortzea** espero dute proiektuen % 51,7k.
- Hasierako faseko enpresen **batez besteko neurria 2 langilekoa** izan zen. % 54,8k 0 eta 5 langile artean dituzte, eta % 4,2k 6 eta 19 artean.
- Euskadiko barne-ekintzailtzaren tasa **% 2koa** izan zen; 2020an % 0,4koa izan zen eta, 2019an, pandemiaren aurretik, % 1,7koa.

2.2 Ekintzailearen profila

Jarraian, Euskadiko ekintzailearen ezaugarri nagusiak laburbiltzen dira, EAerako azken GEM txosteneko datuetan oinarrituta.

6. irudia. Ekintzailearen profila Ekintzailearen profila EAEn



Iturria: GEM EAE

- Euskadiko batez besteko ekintzaileak 44 urte ditu, eta prestakuntza maila altua edo oso altua.
 - Ekintzailtzarako ezagutzak eta gaitasunak dituela uste duten herritarren ehunekoa jaitsi egin da (% 46).
 - Nabarmen hazi da ekintzailtzarako aukerak daudela usten dutenen pertzepzioa (% 34,3; iaz, % 16,5)
 - Porrot egiteko beldurra % 65,6tik % 61,5era jaitsi da.
 - “Lan-faltagatik, bizimodua ateratzea” da ekintzailtzarako arrazoi nagusia, (% 67,2) eta hurrengo arrazoi honako hau da: “orokorrean desberdina den zerbait egiteko” (% 37,1).
 - Bigarren Hezkuntzako edo goi mailako ikasketak dituzten ekintzaileen ehunekoa igo egin da (2007-2020 arteko batezbestekoa % 82,8koa zen, eta azken urtekoa % 93,3koa).
- Azkenik, **emakume ekintzaileen kolektiboaren pisua igo egin da** aurreko bi urteetako batezbestekoarekin alderatuta. Aztertutako azkeneko aldirian, ekintzaileen % 51,4 ziren emakumeak, eta aurreko urteetan, batez beste, % 42,4.

3. 2024KO EEP-AREN 2022KO AURRERAPENA

2024 aldirako Ekintzaitzaren Erakundearteko Planak 2022an izandako aurrerapena ebaluatuko dugu kapitulu honetan. Lau eduki-bloke aztertuko ditugu:

1. **Euskal Ekintzaitzaren Legearen helburuak betetzeko egin diren aurrerapenak.**
2. **Planaren aurrekontu-betearazpenaren aurrerapena.**
3. **Planeko adierazleen aginte-koadroko emaitzak.** Ikuspegi osoa eskaintzen du, batetik, laguntzarako ekosistemaren jardunari buruz, eta bestetik, ekintzaitzako jarduera eta jokabideak aintzat hartuta duen inpaktuari buruz. Sartuta daude laguntzarako euskal ekosistemaren jarduerari buruzko adierazleak eta inpaktuaren adierazleak. Aginte-koadro hau neurtuko den azken urtea da, 2023rako berrikusi eta eguneratu egingo baita.
4. **2024ko EEPren ardatz bakoitzean nabarmendutako programak eta ekimenak.** Planaren bederatzi ardatzetako bakoitzaren gauzatze-aurrerapena laburbildu dugu, honako hauek nabarmenduta:
 - Aurrerapena planifikatutakoaren arabera doa aurrez ikusitako 776 proiektu eta programa gehienetan, (2024ko EEPan xehetasunez ageri dira).
 - Ekimen eta eragile berriak txertatu dira, publikoak, pribatuak eta publiko-pribatuak, eta horrek erakusten du euskal ekosistemak baduela dinamismoa, eta ekintzaitzarekiko gero eta interes handiagoa dutela erakunde, ekonomia eta gizarte arloko eragile ugari.
 - Adibidez, Euskadiko udalak eta haien garapenerako agendak nabarmentzen dira. 2022an, 370 ekintza egin ziren, horietatik 99 berriak, eta 4,72 milioi euroko aurrekontua izan dute guztira (aurreko aldi baino % 8,5 handiagoa).
 - Lankidetzan da 2024eko EEParen eragile sustatzaileen jarduteko filosofia. 2022an gauzatutako ekintzen ia % 90 bi sail, erakunde edo eragilerekin edo gehiagoren artean egin zituzten; hau da, elkarlanean diseinatu, finantzatu, gauzatu eta/edo ebaluatu zituzten. Eta, gainera, hainbat proiektu komun nabarmen egin zituzten, hala nola:
 - Euskal ekosistemaren mapa:

Ez dago ekosistemaren eta haren bilakaeraren ikuspegi orokorra eskaintzen duen tresnarik, ezta martxan jarritako politiken benetako inpaktua erakusten duen tresnarik ere. Horren aurrean, Ekintzaitzaren Euskal Ekosistema bistartzeko plataforma publiko bat garatzearen aldeko apustua egin dute, dealroom.com orrialdearekin elkarlanean, honako helburu hauekin:

 - Ekintzaitzaren Euskal Ekosistemaren egoeraren gaineko informazio eguneratua izatea.
 - Startupeki eta ekosistemako eragileei ikusgarritasun handiagoa eskaintzea.
 - Hurrengo berritzaileen belaunaldiari munduko agertokian arrakasta izaten laguntzeko beharrezkoak diren loturak sustatzea.
 - Euskadi ekintzaitza aurreratuko etorkizun oparoko Hub berri gisa kokatzea nazioarteko mapan.

Ekintzailetzaren euskal ekosistemaren gaineko informazio eguneratu guztia jasotzen du [Up Euskadi](#) plataforma berriak, bai enpresa sortu berriei dagokienez, bai ekosistema osatzen duten beste eragile batzuei dagokienez. Hala, ezagutzera ematen da inbertitzaileen, inkubategi eta azeleratzaile pribatuen eta, noski, BICen jarduera.

Ekintzailetzaren euskal ekosistemaren mapa horren arabera, Euskadi ekintzailetza teknologikoaren Hub garrantzitsua dela baieztatu dezakegu. Izan ere, oinarri teknologikoko eta/edo berritzaileko 1.000 enpresa aktibok baino gehiagok egoitza dute gure herrialdean.

2023an [Basque Country Report 2022](#) egingo da, lehen aldiz. Ekosistema bistaratzeko eta posizionatzeko lagunduko du, eta haren ezaugarri bereizgarriak nabarmentzen ere bai (b2b ekosistema, laguntza publiko bereizgarria, berrikuntza irekia...).

Hurrengo orrietan, ardatz bakoitzaren helburu estrategikoa gogoraraziko dugu, adierazle bereizgarriak aztertuko eta programarik esanguratsuenetako batzuk aurkeztuko ditugu.

3.1 Ekintzaitzaren Euskal Legean jasotako helburuetan eginiko aurrerapena

Ondorengo taula honetan ikusten den moduan, 2024 aldirako Ekintzaitzaren Erakundearteko Planak, bere ardatz, jarduera-ildo eta neurrien bidez, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiei Laguntzeko 16/2012 Legeak planteatutako helburu ia guztietan **aurrerapen maila altua edo oso altua** izaten lagundu du. Hala ere, badira oraindik ere 2024ko EEParen eragile sustatzaileak lantzen ari diren etorkizuneko erronkak.


LAEPE helburuak	EEP 2024- 2022ko balantzea			2022ko aurrerapena	Etorkizuneko erronkak
	Ardatzak	2022ko ekintza nabarmenak	2022ko adierazleak		
Enpresak sortzen lagunduko duen esparru ekonomiko bat sustatzea	6 7 9	- Ekintzaitzari mesede egiteko zerga-esparrua sendotzea - Sortzen ari diren enpresen ekosistema sustatzeko estatuko lege berria aztertzea	- 35 milioi euro ekintzaitzarekin zuzenean lotutako kenkari, salbuespen eta gainerako neurri fiskaletan		- Ekintzaitzarako beharrezkoak diren berdintasuna, kohesioa eta segurtasuna izango dituen testuinguru baten berme iraunkorra. - Zaintza Estatuko eta europako lege-esparruaren bilakaeraren aurrean
Pertsona ekintzaileei laguntzeko dauden politikak koordinatzea	6 7 9	- EEP gobernantza-eredua hedatzea (Erakundearteko Mahaia eta euskal ekosistemako Aholkularitza Kontseiluaren arteko bilerak, urteko balantze-txostena egitea...)	- Eusko Jaurlaritzako 20 zuzendaritza, 3 Foru Aldundi eta EUDEL, Erakundearteko Mahaian ordezkatuta. - Erakundearteko koordinazioarako 10 bilera (Mahaia + Kontseilua + koordinazioa)		- Eragin hirukoitzaren eta lagundutako proiektuen trazabilitatearen ebaluazioak eta neurketak orokortzea. - Ekintzaile-proiektuen errotazioa/hilkortasuna kudeatzea
Enpresen sorrera eta hazkundea sustatzen laguntzea	1 2 3 5 8	- Ekintzaileei laguntzeko programa ugari - BIND 4.0 - BIND SME Connection	-2.532 enpresa sortu dira dekretuen laguntzarekin - 33 kontratu sortu dira ekintzaitzako proiektuen eta finkatutako enpresen artean BIND4.0ren bidez - E/ko Enplegu eta Inklusio Zuzendaritzaren egitasmo berriak (0,7 milioi euro): beharra duten eskualdeei bultzada ematea, silver economy eta emakumeen ekintzaitza		- Ekintzaitza berdinzale eta inklusiboaren aldeko apustua - Bultzada trantsizio hirukoitzari
Pertsona ekintzaileen jarduerak finantzatzen laguntzea	4	- Jaiotzeko, abiatzeko, hazteko eta sendotzeko potentziala duten proiektuei finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeko alternatiba multzoa	-7.538.021 euro enpresa ekintzaileei tresna publikoen bidez laguntza finantzarioa emateko - 202 enpresa tresna publikoen partaidetzarekin		- Finantzaketarako eta inbertsiorako erabilgarri dauden iturri eta mekanismo guztiak ikusgarri egitea - RIS3 arloetan espezializatutako funts eta kapital pribatuak erakartzea.
Finantzaketa-ildoen sorrera sustatzea	4	- Hitzarmenak Elkargirekin - Tresna eta eragile publiko-pribatu berriak	- BFAk eta GFAk sustatutako inbertsio-funts berriak, 2022rako aparteko diru-hornidurarekin (5,6M€ eta 6M€)		- Koinbertsio publiko pribatua - Euskadin inbertsioaren eta finantzaketaren sektorea profesionalizatzea eta egituratzea.
Giza kapitala, talentua eta sormena indartzen laguntzea	1 2 3 8	- Giza kapital ekintzailea prestatzeko programen multzoa, bereziki hezkuntza-etapa guztietan. - Ekintzaitzarako unibertsitate-programa berriak sortzea.	- 4.336 lagunek jaso dute ekintzaitzarako prestakuntza - 13 unibertsitate-programa berri.		- Ekosisteman behar diren profil profesional berrien eskaintzaren eta eskaeraren konexioa - Belaunaldien arteko erreleboari laguntzea, ekintzaitza eta ehumaren gaztetzea bultzatzeko palanka gisa.
Talentuaren iritsiera sustatzea	1 2 4 9	- BIND 4.0 - Bizkaia Talent - Gipuzkoa Talent - Startup Wise Guys - BAT-B Accelerator Tower - Talentu ekintzailea erakartzeko beste programa batzuk	- BAT Ekintzaitzarako Nazioarteko Zentroa martxan jarzea eta 17 startup erakartzea		- Pertsona ekintzaileak erakartzea eta haiekin trukeak egitea - RIS3 arloko profesionalak erakartzea
Zerbitzu bakoitzaren errentagarritasuna eta kalitatea identifikatuko duten adierazle komunak koadro bat sortzea	6 7	- EEPren aginte-koadroa	- EEPren aginte-koadroko 39 adierazleei dagozkien 2022 datuen neurketa parte-hartzailea (ikusitako xehetasunak urteko balantzearen txostenean)		Ekosistemari buruzko informazioaren kudeaketa aurreratua Aginte-koadroaren eta ekosistemaren adierazle sintetikoaren proposamen berria

3.2 Aurrekontuaren aurrerabidea

2022an, 2024ko EEPren aurrekontua hazi egin zen **aurreko urteekin alderatuta**. 2021arekin alderatuta, onartutako aurrekontua % 15,86 altuagoa izan zen eta, esleitutakoa, % 31 altuagoa.

7. irudia. Ekintzailtzari laguntzeko aurrekontu publikoaren urteko bilakaera

M€; 2017-2022



Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak. Aurrekontua kentzeagatik aurreko txostenetatik doitutako datuak

Nabarmentzekoa da hasieran **onartutako aurrekontuaren % 113 gauzatu zela** 2022an. Desbideratze positiboa, batez ere, honako hauengatik gertatu zen: aurrekontua aurreratu zen Ekintzailtzaren Nazioarteko Zentroa egokitzeko (BFA, 6,85M), eta funts berriak sortu ziren Bizkaian (BFA) eta Gipuzkoan (GFA), 2022erako aparteko diru-hornidurarekin (5,68M eta 5,75M, hurrenez hurren). Esleitutako aurrekontua 96,36 milioi eurokoa izan zen azkenean; aurretik onartu zena, aldiz, 84,97 milioi eurokoa.

8. irudia. Planifikatutako eta esleitutako aurrekontua, 2024ko EEPren jarduera-ardatzen arabera

Jarduera-ardatzak	Onartutako aurrekontua, 2022	Esleitutako aurrekontua, 2022
1. EKINTZAILTZAREN KULTURA ETA BALIOAK	1.689.052 €	1.665.615 €
2. GIZA KAPITALAREN GAITZEA ETA KONEXIOA	7.541.408 €	9.651.925 €
3. EKINTZAILTZARAKO IDEIEN ITURRIAK	24.337.647 €	21.057.146 €
4. FINANTZAKETA eta INBERTSIOA	12.333.644 €	20.506.726 €
5. MERKATURAKO SARBIDEA	7.155.450 €	7.025.568 €
6. LAGUNTZARAKO PROZESU, ZERBITZU eta PROGRAMAK	14.936.834 €	13.721.062 €
7. ZERGA SISTEMA eta ARAUDI ERRAZTAILEAK	- €*	- €*
* Aurrekontu espezifikoa ez dago sartuta, jardueren izaera dela-eta.		
8. AZPIEGITURA ADIMENDUNAK	11.749.963 €	17.530.307 €
9. POSIZIONAMENDUA ETA EKOSISTEMA INDARTZEA	502.000 €	474.293 €
* UDALAK eta GARAPEN-AGENTZIAK	4.722.494 €	
	84.968.492 €	96.355.137 €

Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak.

*Ekintzailtza sustatzeko EAEko udalek eta garapen-agentziek 2022an gauzaturako ekintza guztien aurrekontu agregatua (iturria: EUDEL - Garapen, ez dago EEPren ardatzen arabera banakatuta).

Jarduera-ardatzen arabera, 3. ardatzak (Ekintzailtzarako iturriak eta ideiak) eta 4. ardatzak (Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea) izan zuten aurrekontu handiena 2022an.

3.3 Adierazleen aginte-koadroa

2024ko EEPk **39 adierazle** ditu bi kategoriatan sailkatuta: jarduera eta inpaktua.

1. Jarduera: 2022an, aurreko urteko zifrak baino hobeak eskuratu ziren hamar adierazleren kasuan. Hala, sendotu egin zen bilakaera orokorra.

9. irudia. JARDUERAREN adierazleen aginte-koadroa, 2013-2022

JARDUERAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
1. ardatza Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiek finantzaturako ekintzailetza-sariak mobilizatutako proiektu-kopurua.	372	583	336	405	446	571	461
Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiek finantzaturako enpresa-senaren aitorpenerako sari-kopurua	19	44	66	54	44	60	72
2. ardatza Eragile publikoen bidez ekintzailetzaren gaineko oinarritzko prestakuntza jaso duen pertsona-kopurua	2017an definitutako adierazle berria	2.474	2.788	3.026	1.372	2.588*	3.212
Eragile publikoen bidez ekintzailetzaren gaineko prestakuntza aurreratua jaso duen pertsona-kopurua.		2.785*	2.962*	2.975	1.781*	2.338*	1.956
Enpresen transmisioa bultzatzen duten jardueren kopurua		4	6	4*	5	4	7
3. ardatza Dekretuen laguntzaaz sortutako enpresa eta enpresari indibidualen kopurua	2.956	2.745	2.799	2.592	2.267	2.342	2.532
4. ardatza Barneko ekintzailetzarako programetan parte hartzen duten enpresen kopurua	51	86	93	48	90	107	82
Finantzaketarako eta inbertsiorako tresna publiko nagusiek enpresa ekintzaileei laguntzeko bideratutako ondarearen eta zorroaren zenbatekoa (€)	2017an definitutako adierazle berria	7.259.687*	6.921.050*	8.391.261*	13.469.492*	10.018.334*	7.538.021*
Finantzaketarako eta inbertsiorako tresna publiko nagusiek partaidetzak dituzten enpresen kopurua		183	162*	187*	175	202	202
5. ardatza BIND4.0 programaren bidez Euskadin proiektu ekintzaileek egindako kontratuen eta sortutako enpresen kopurua.		40	44	53	40	33	33
6. ardatza Eragile publikoen bidez egindako kontsulten kopurua.	8.133	8.549	7.459*	7.092	5.838	6.349	6.649
Eragile publikoen aholkularitza jaso duten proiektuen kopurua.	4.392	4.588	4.391*	4.473	3.355	3.563	3.400
Eragile publikoen laguntzaaz egindako bideragarritasun-planen kopurua.	3.133	3.097	3.180	2.909	2.264	2.181	2.217
Hazkundera eta lehiakortasuna bultzatzen duten jardueren kopurua	30	27*	28*	29*	37*	45*	50*
Espainian enpresa bat modu indibidualan altan emateko behar diren egunen kopurua (Munduko Bankua)	16	13	13	13	Datua argitaratzearen zain		
7. ardatza EAEn ekintzailetzari laguntzeko eguneratutako arauen edo arau berrien kopurua (fiskalak edo ekintzailetzaren ekosistemari laguntzen dioten beste arlo batzuetakoak)		3	3	1	5	2	5
8. ardatza Inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusiek inkubatutako enpresen kopurua**	2017an definitutako adierazle berria	151**	123**	120**	117**	142**	193**
Urtean zehar inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusiek hartutako enpresa berrien kopurua.		35	32*	38	15	45	51
Urtean zehar inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusietan haien egonaldia amaitu duten enpresen kopurua.		33	24*	20	26	17	50
9. ardatza Euskadiko Ekintzailetzaren Erakundearteko Planaren testuinguruan egindako erakundearteko bileren kopurua.	17	34	14*	16	10	14	10

*Datu doitua Iturria: 2024ko EEPan parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE, EIN, Gizarte Segurantzza eta jasotako informazioaren arabera eginiko estimazioak. **Adierazle hau berrikuspene-prozesuan dago.

2. Inpaktua:

10. irudia. INPAKTUAREN adierazleen aginte-koadroa 2013-2022

INPAKTUAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa	
1. ardatza Datozen 6 hilabeteetan ekiteko aukerak jasoko dituzten pertsona ez-ekintzaileen %, generoaren arabera (GEM)	% 20,9 (Emakumeak: % 19,7, Gizonak: % 22,9)	% 28,3 (Emakumeak: % 25,1, Gizonak: % 31,5)	% 27 (Emakumeak: % 24,6, Gizonak: % 29,4)	% 39,6 (Emakumeak: % 36,8, Gizonak: % 42,3)	% 16 (Emakumeak: % 15,1, Gizonak: % 16,8)	% 32,9 (Emakumeak: % 29,8, Gizonak: % 36)	GEM EAE berria argitaratzearen zain	
Porrot egiteko beldurra ekintzailetza hasteko oztoppo dela uste duten pertsonen % (GEM)	% 46,7 (Emakumeak: % 51,7, Gizonak: % 45,8)	% 42,4	% 42,7	% 55,9	% 66	% 61,5		
2. ardatza 5 langiletik gorako negozio ekintzaileen % (GEM)	% 7,0	% 6,9	% 1,4	% 1,1	% 9,7	% 7,1		
Ekintzailetza-proiektu bat martxan jartzeko beharrezko gaitasunak dituztela uste duten pertsonen % (GEM)	% 42,5	% 40,7	% 44,8	% 50	% 50	% 46		
Ekintzailetza-tasa guztira, generoaren arabera (GEM)	Guztira: % 3,4 (Emakumeak: % 2,9, Gizonak: % 3,7)	Guztira: % 5,8 (Emakumeak: % 4,7, Gizonak: % 6,8)	Guztira: % 5,1 (Emakumeak: % 4,6, Gizonak: % 5,6)	Guztira: % 4,7 (Emakumeak: % 4,1, Gizonak: % 5,2)	Guztira: % 5,2 (Emakumeak: % 5,0, Gizonak: % 5,5)	Guztira: % 4,9 (Emakumeak: % 5,2, Gizonak: % 4,7)		
Aukerak eta beharrak bultzatutako ekintzailetza-proiektuen % (GEM)	Aukera: % 71,8 Beharra: % 26,6 Beste batzuk: % 1,7	Aukera: % 76,5 Beharra: % 21,7 Beste batzuk: % 1,7	Aukera: % 72,7 Beharra: % 23,2 Beste batzuk: % 4,1	GEM txostenaren ikuspegi berria				
3. ardatza Euskadin altan emandako autonomoen kopuruaren bilakaera (aurreko urtearekiko %) (Gizarte Segurantzza)	+% 5,4	-% 8,9	+% 8,0	-% 11,8	-% 17,2	+% 9,2		+% 22,8
Euskadin sortutako merkataritzako enpresen (anonimoak eta mugatuak) kopuruaren bilakaera (aurreko urtearekiko %) (EIN)	+% 1,0	-% 4,2	% 3,9	+% 0,6	-% 15,8	+% 20,5		-% 2,6
Azken hiru urteetan barne-ekintzailetzako jardueraren bat egin duten langileen % (GEM)	% 2,2	% 1,5	% 1	% 2	% 0,4	% 2,1		
Barne-ekintzailetzako proiekturen batean parte hartzen duten langileen % (GEM)	% 4,9	GEM txostenean neurtu gabeko datua						
4. ardatza Ekintzaileak berak jartzen duen hazi-kapitalaren % (GEM)	% 64,5	% 45,8	% 58	% 58,7	% 79	% 74,2	GEM EAE berria argitaratzearen zain	
5. ardatza Nazioarteko orientazioa duten enpresen % (GEM)	% 21,1	% 25,2	% 24,2	% 21,5	% 19,4	% 24,7		
Bezero batzuentzat edo guztientzat berria den produktua edo zerbitzua eskaintzen duten negozio ekintzaileen % (GEM)	% 33,2	% 44,3	% 35	% 29	% 32,8	% 26,2		
Lehiakiderik gabeko edo lehiakide gutxiko negozio ekintzaileen % (GEM)	% 42,1	% 44,3	% 55,3	GEM txostenaren ikuspegi berria				
6. ardatza Duela urtebete aholkularitza jaso ondoren sortutako enpresen kopurua eta urtebeteren buruan martxan jarraitzen duten enpresen kopurua, enpresak eta autonomoak berezita.	Enpresak: % 90,9 Autonomoak: % 86,1	Enpresa: % 93 Autonomoak: % 89	Enpresa: % 96 Autonomoak: % 87,6	Enpresa: % 98,4 Autonomoak: % 84,9	Enpresa: % 93 Autonomoak: % 88,6	Enpresa: % 93,2 Autonomoak: % 88,6	Enpresa: % 94,39 Autonomoak: % 88,90	
Duela 3 urte aholkularitza jaso ondoren sortutako enpresen kopurua eta 3 urteren buruan martxan jarraitzen duten enpresen kopurua, enpresak eta autonomoak berezita.	Enpresak: % 85,0 Autonomoak: % 74,6	Enpresa: % 78 Autonomoak: % 80	Enpresa: % 88,4 Autonomoak: % 79	Enpresa: % 88,6 Autonomoak: % 71,2	Enpresa: % 81,3 Autonomoak: % 81,6	Enpresa: % 85,9 Autonomoak: % 85,8	Enpresa: % 80,15 Autonomoak: % 67,21	
Finkatutako enpresen jabeak diren herritarren % (soldaten ordainketa 42 hilabetetik gorako tartean) (GEM)	% 7,0	% 5,6	% 5,8	% 7,6	% 5,8	% 5,2	GEM EAE berria argitaratzearen zain	

3.4 2024ko EEPko ardatz bakoitzean zenbat egin den aurrera

Jarraian, Planeko ardatz bakoitzean 2022an izan diren aurrerapenak zehaztuko ditugu, eta adierazle eta berrikuntza nagusiak eta 2022an aurrekonturik handiena izan duten programak nabarmenduko ditugu.

1. ardatza. Ekintzailetzaren kultura eta balioak


Helburu estrategikoa: gizarteko eta bizitzako etapetako maila guztietan ekintzailetzaren kultura eta balioak sustatzea, eta, horretarako, herritarrek ekintzailetza etorkizunerako aukera erakargarria dela pentsa dezaten ziurtatzea.

Funtsezko adierazleak:

2022an, onartutako aurrekontua baino % 1,4 txikiagoa izan zen esleitutako aurrekontua.

Ekintzailetzarako konpetentziaren osagai diren pentsamendu kritikoa, ekimena, sormena, taldeko lana, erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko gaitasuna presente daude ikasleekin egiten diren hezkuntzako esku-hartzeetan. 2022ari dagokionez, euskal unibertsitateen lana nabarmendu behar da: 2022an 90 ekintza egin dituzte guztira, eta horietatik 50 ekintzaileen kultura eta balioak sustatzera zuzenduta egon dira (% 56). 50 horietatik hamalau 2022an sartu dira.

1. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2022



Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak

1. ardatza: Jardueraren eta inpaktuaren adierazleak

JARDUERAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiek finantzaturako ekintzailetza-sariek mobilizatutako proiektu-kopurua.	372	583	336	405	446	571	461
Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiek finantzaturako enpresa-senaren aitortzerako sari-kopurua	19	44	66	54	44	60	72

INPAKTUAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
Datozen 6 hilabeteetan ekiteko aukerak jasoko dituzten pertsona ez-ekintzaileen %, generoaren arabera (GEM)	% 20,9 (Emakumeak: % 19,7, Gizonak: % 22,9)	% 28,3 (Emakumeak: % 25,1, Gizonak: % 31,5)	% 27 (Emakumeak: % 24,6, Gizonak: % 29,4)	% 39,6 (Emakumeak: % 36,8, Gizonak: % 42,3)	% 16 (Emakumeak: % 15,1, Gizonak: % 16,8)	% 32,9 (Emakumeak: % 29,8, Gizonak: % 36)	GEM EAE berria argitaratzearen zain
Porrot egiteko beldurra ekintzailetza hasteko oztopoa dela uste duten pertsonen % (GEM)	% 46,7 (Emakumeak: % 51,7, Gizonak: % 45,8)	% 42,4	% 42,7	% 55,9	% 66	% 61,5	

Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE, EIN eta Gizarte Segurantzza

2022KO EKINTZA NABARMENAK	Eragilea
Araba ekinean	Arabako Foru Aldundia, Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Demografia Erroka
Enpresari	Bizkaiko Foru Aldundia, Enplegua
Egin eta Ekin	Bizkaiko Foru Aldundia, Ekonomiaren Sustapena
Entreprenari	Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Departamentua eta EHU

Tokiko mailan, udalek eta tokiko agentziek bultzatutako ekintzen % 25 egon dira ekintzailetzaren kultura eta balioak sustatzera bideratuak (tokiko ekintzan pisurik handiena izan duen ardatza da, eta aurreikusitakoak baino % 5 ekintza gehiago egin dira).

2. ardatza. Giza kapitalaren gaitzea eta konexioa

Helburu estrategikoa: Giza kapital ekintzailearen gaitzea indartzea, bereziki, hezkuntzako etapa guztietan, eta ekintzailtza-aukera berriekiko erakarpina, kontratazioa, mugikortasuna, interakzioa eta konexioa bultzatzea.


Funtsezko adierazleak:

2022an, onartutako aurrekontua baino % 28 handiagoa izan zen esleitutako aurrekontua. Handitu egin zen Lanbideren Lehen Aukera programara bideratutako aurrekontua, eta horregatik eman zen alde hori. Aurrekontuaren % 65 bi programak hartzen dute: **Lehen Aukera** eta **Taldeka**, azken hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarena. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomia Zuzendaritzak **Bazkide Berriak** eta **Gazteen Prestakuntza Gizarte Ekonomiaren gainean** programen bidez eusten duen apustua ere nabarmendu behar da.

2017-2019 aldian, 5.000 pertsonak baino gehiagok jaso zuten ekintzailtzairekin oinarritako prestakuntza edo prestakuntza aurreratua. 2020an 3.000ra murriztu zen zifra hori eta 2021ean 4.926ra iritsi zen, baina 2022an 5.168 pertsonak jaso dute prestakuntza.

Emaitza gisa, GEM EAE azken txostenaren arabera, Euskadik badu populazio gaitu bat, ekintzailtzaile proiektu bat abian jartzeko trebeziak badituela uste duena.

2. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2022



Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak

2. ardatza: Jardueraren eta inpaktuaren adierazleak

JARDUERAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
Eragile publikoen bidez ekintzailtzairekin oinarritako prestakuntza jaso duen pertsona-kopurua	2017an definitutako adierazle berria	2.474	2.788	3.026	1.372	2.588	3.212
Eragile publikoen bidez ekintzailtzairekin oinarritako prestakuntza aurreratua jaso duen pertsona-kopurua		2.785*	2.962*	2.975	1.781*	2.338*	1.956
Enpresen transmisioa bultzatzen duten jardueren kopurua	4	6	4*	5	4	7	8
INPAKTUAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
5 langiletik gorako negozio ekintzailearen % (GEM)	% 7,0	% 6,9	% 1,4	% 1,1	% 9,7	% 7,1	GEM EAE berria argitaratzearen zain
Ekintzailtza-proiektu bat martxan jartzeko beharrezko gaitasunak dituztela uste duten pertsonen % (GEM)	% 42,5	% 40,7	% 44,8	% 50	% 50	% 46	

*Datu doitua Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE, EIN eta Gizarte Segurantzza

2022KO EKINTZA NABARMENAK	Eragilea
Lehen Aukera	Lanbide
Gazteen prestakuntza gizarte-ekonomian	Gizarte Ekonomia Zuzendaritza, EJ
Bazkide Berriak	Gizarte Ekonomia Zuzendaritza, EJ
INIZIA Arabacampus	EHU
Reach-Incubator	Deustuko Unibertsitatea
Inncommon	Tecnun

Udalerrri mailan, garatutako 323 ekintzetatik 59 izan ziren giza kapitalaren gaitzearekin eta konexioarekin lotutako ardatzekoak. Egitasmoen % 18arekin, pisu handieneko bigarren ardatza da tokiko administrazio eta agentzientzat.

3. ardatza. Ekintzailtzarako iturriak eta ideiak

Helburu estrategikoa: Masa kritikoa eta “kala” eta iturri desberdinetan sortutako ideia eta egitasmo berrien kalitatea areagotzea, kolektibo ekintzaile bakoitzaren behar espezifikoari arreta jarritz.

Funtsezko adierazleak:


3. ardatzerako onartu zen aurrekontua izan zen altuena EEPren ardatz guztietatik, eta agerian utzi du **ekintzailtzaren hasierako faseetan laguntza emateko** dagoen apustu publikoa. 2022an, onartutako aurrekontuaren % 86,52 esleitu zen. Hainbat programaren eskaria txikiagoa izan zen, eta horrek azaltzen du aldea.

Aurrekontu-ahalegina zenbait eragile publikoren artean banatu zen. Eragile horiek **ekintzailtzarako iturriak eta ideiak sortzen laguntzeko 37 programa inguru garatu zituzten zenbait sektore eta kolektibotan.**

Aurrekontuaren % 50 Eusko Jaurlaritzaren hiru programak hartu zuten: **Eskualdeetako enplegu-planen barruan enpresak sortzeko laguntzak**, Lan eta Enplegu Sailarena; **Gizarte Ekonomian Ekitea**, Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzarena; eta **Lehiabide**, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarena.

Halaber, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak hiru egitasmo berri jarri ditu martxan ardatz honetan, honakoetara zuzenduak: beharra duten eskualdeei bultzada ematea; zaintza arloa eta *silver economy* deritzona; eta emakumeen ekintzailtza eta talentua. Hiru ekintzen artean, esleitutako guztizko aurrekontua 742.000 euro baino apur bat altuagoa izan da.

3. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2022



Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak

3. ardatza: Jardueraren eta inpaktuen adierazleak

JARDUERAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
Dekretuen laguntzaz sortutako enpresa eta enpresari individualen kopurua	2.956	2.745	2.799	2.592	2.267	2.342	2.532
Barneko ekintzailtzarako programetan parte hartzen duten enpresen kopurua	51	86	93	48	90	107	82
INPAKTUAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
Ekintzailtza-tasa guztira, generoaren arabera (GEM)	Guztira: % 3,4 (Emakumeak: % 2,9, Gizonak: % 3,7)	Guztira: % 5,8 (Emakumeak: % 4,7, Gizonak: % 6,8)	Guztira: % 5,1 (Emakumeak: % 4,6, Gizonak: % 5,6)	Guztira: % 4,7 (Emakumeak: % 4,1, Gizonak: % 5,2)	Guztira: % 5,2 (Emakumeak: % 5,0, Gizonak: % 5,5)	Guztira: % 4,9 (Emakumeak: % 5,2, Gizonak: % 4,7)	GEM EAE berria argitaratzearen zain
Aukerak eta beharrak bultzatutako ekintzailtza-proiektuen % (GEM)	Aukera: % 71,8 Beharra: % 26,6 Beste batzuk: % 1,7	Aukera: % 76,5 Beharra: % 21,7 Beste batzuk: % 1,7	Aukera: % 72,7 Beharra: % 23,2 Beste batzuk: % 4,1	2019ko GEM txostenaren ikuspegi berria			GEM EAE berria argitaratzearen zain
Euskadin altan emandako autonomoen kopuruaren bilakaera (aurreko urtearekiko %) (Gizarte Segurantzza)	+% 5,4	-% 8,9	+% 8,0	-% 11,8	-% 17,2	+% 9,2	+% 22,8
Euskadin sortutako merkataritzako enpresen (anonimoak eta mugatuak) kopuruaren bilakaera (aurreko urtearekiko %) (EIN)	+% 1,0	-% 4,2	% 3,9	+% 0,6	-% 15,8	+% 20,5	-% 2,6
Azken hiru urteetan barne-ekintzailtzako jardueraren bat egin duten langileen % (GEM)	% 2,2	% 1,5	% 1	% 2	% 0,4	% 2,1	GEM EAE berria argitaratzearen zain
Barne-ekintzailtzako proiekturen batean parte hartzen duten langileen % (GEM)	% 4,9	GEM txostenean neurtu gabeko datua					GEM EAE berria argitaratzearen zain

Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE, EIN eta Gizarte Segurantzza

2022KO EKINTZA NABARMENAK	Eragilea
Enpresak sortzeko laguntzak - enpleguaren eskualdeetako planak	Lan eta Enplegu Saila, EJ
Gizarte Ekonomian ekitea	Gizarte Ekonomia Zuzendaritza, EJ
Lehiabide	DDESMA EJ
Garapen Jasangarria	Gipuzkoako Foru Aldundia – Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Departamentua

Udalek eta tokiko agentziek aurrera eramandako ekintzak errepasatuz gero, egitasmoen % 16 bideratu dira ekintzailetzarako iturriak eta ideiak garatzera. Hala, pisu handieneko laugarren ardatza da. 52 ekintza gauzatu dira guztira; horietako 4 berriak ziren, 2022an sortuak.

4. ardatza. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea

Helburu estrategikoa: Jaiotzeko, abiatzeko, hazteko eta sendotzeko potentziala duten proiektuei finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeko alternatibak eskaintzea.

Funtsezko adierazleak:

2022an aurrekonturik handiena izan zuen bigarren ardatza. Onartutako aurrekontua baino % 66,27 handiagoa izan zen esleitutako aurrekontua. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak funts berriak sortu zituzten, eta 2022rako aparteko diru-hornidura egin zituen, **Seed Capital Bizkaia eta Seed Capital Gipuzkoaren** bidez.

4. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2022



Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak

Partaidetza publikoa duten inbertsio-funts pribatuak sortzeko politika aktiboa jarri dute martxan Gipuzkoan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentuak sustatu du, EJKo Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin koordinatuta. Funtzak batu dituzte Seed Gipuzkoan, eta honek aparteko diru-hornidura egin du 2022an, ia 6 milioi eurokoa, etorkizuneko inbertsioetarako. Bizkaiaren kasuan, alde positiboa 5.677.800 eurokoa izan da, 2 funts berri sortu baitituzte: BAF, Biscay Anchor Fund, BFAko funtsen funtsa, 3.600.000 €-ko hornidura duena; eta Start Bizkaia Funtsa, 2.077.800 €-ko hornidura duena eta berritzaile-bokazioa duten eta hasierako fasean dauden egitasmoak bultzatzera bideratua.

Bestetik, interesgarria da finantzaketarako eta inbertsiorako tresna publiko nagusien **partaidetzak dituzten enpresen kopurua** nabarmentzea, inoizko zifrarik altuena baita.

4. ardatza: Jardueraren eta inaktuaren adierazleak

JARDUERAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
Finantzaketarako eta inbertsiorako tresna publiko nagusiek enpresa ekintzaileei laguntzeko bideratutako ondarearen eta zorroaren zenbatekoa.	2017an definitutako adierazle berria	7.259.687**	6.921.050**	8.391.261**	13.469.492**	10.018.334**	7.538.021**
Finantzaketarako eta inbertsiorako tresna publiko nagusiek partaidetzak dituzten enpresen kopurua		186	162*	187*	175	202	202
INPAKTUAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
Ekintzaileak berak jartzen duen hazi-kapitalaren % (GEM)	% 76	% 45,8	% 58	% 58,7	% 79	% 74,2	GEM EAE berria argitaratzearen zain

*Datu doitua Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE

2022KO EKINTZA NABARMENAK	Eragilea
Seed Capital Bizkaia	Bizkaiko Foru Aldundia, Ekonomiaren Sustapena
Ekintzaile	DDESMA EJ
Seed Capital Gipuzkoa	Gipuzkoako Foru Aldundia – Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Departamentua
Gauzatu	DDESMA EJ

Tokiko mailan, 27 ekintza egin dira guztira finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeari dagokionez; 2 ekintzak berriak ziren, 2022an sortuak.

5. ardatza. Merkatutarako sarbidea

Helburu estrategikoa: Proiektu ekintzaileei merkatuan sartzeko eta “lehenengo bezeroak” izateko aukerak eskaintzea, bereziki, RIS3 etorkizuneko sektoreetan potentzial handiena duten proiektuei.


Funtsezko adierazleak:

2022an, onartutako aurrekontua baino % 1,8 txikiagoa izan zen esleitutako aurrekontua.

Ardatz honetan, **BIND 4.0** eta **BIND SME Connection** programak nabarmendu behar dira, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarenak.

BINDen kasuan, 2016-17tik 200 kontratu baino gehiago egin dira proiektu ekintzaileen (130 startup) eta egonkortutako Euskadiko enpresen artean, eta orain arte 7 milioi euro baino gehiago fakturatu dira. 2022an, zehazki, **33 kontratu berri** sortu dira.

5. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2022



Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak

5. ardatza: Jardueraren eta inaktuaren adierazleak

JARDUERAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
BIND4.0 programaren bidez Euskadin proiektu ekintzaileek egindako kontratuen eta sortutako enpresen kopurua.	2017an definitutako adierazle berria	40	44	53	40	33	33

INPAKTUAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
Nazioarteko orientazioa duten enpresen % (GEM)	% 21,1	% 25,2	% 24,2	% 21,5	% 19,4	% 24,7	GEM EAE berria argitaratzearen zain
Bezero batzuentzat edo guztientzat berria den produktua edo zerbitzua eskaintzen duten negozio ekintzaileen % (GEM)	% 33,2	% 44,3	% 35	% 29	% 32,8	% 26,2	
Lehiakiderik gabeko edo lehiakide gutxiko negozio ekintzaileen % (GEM)	% 42,1	% 44,3	% 55,3	GEM txostenaren ikuspegi berria			

Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE

2022KO EKINTZA NABARMENAK	Eragilea
BIND 4,0	DDESMA, EJ
Urratsbat enpresa-sarea	Lanbide Heziketako Sailburuordetza EJ
Industria Digitala	DDESMA, EJ

Udalerrri mailan merkatutarako sarbidearekin lotutako 7 ekintza egin dira guztira (ekintzailatza bultzatzeko udalerrri mailan egindako ekintza guztien % 2). *OutLab Programa* nabarmentzen da, 2022an Donostia Garapenak sortutako programa berria. Zientzialariei prestakuntza ematera bideratutako programa da, horien ikerketa-proiektuak enpresa-proiektuak bilaka daitezten.


6. ardatza. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak

Helburu estrategikoa: Laguntzeko dauden prozesu, programa eta zerbitzuak herritar ekintzaileen beharretara egokitzea erakundeen arteko eta arlo publiko-pribatuaren arteko koordinazioaren eta elkarlanaren bidez.

Funtsezko adierazleak:

Aurrekontu handieneko laugarren ardatza izan zen seigarren ardatza. Onartutako aurrekontuaren % **91,86 esleitu** zen. 2022an ez zuten Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politika Sailburuordetzaren Onekin programaren deialdirik egin eta, beste arrazoi batzuen artean, horrek azaltzen du aurrekontu osoa esleitu ez izana.

6. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2022



Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak

2022an, hainbat programa egin dira, eta beste hainbati jarraipena eman zaie. Programa horiek ekintzailetzaren hasierako prozesua eta proiektuen hazkunde eta sendotze faseak hartzen dituzte barne, transmisioaren edo erreleboaren fasera arte. Ekintzailetzarako **laguntza integrалеko** programez gain (adibidez, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Demografia Erronka Sailaren “Ekin Araban” programa), hauetara bideratutako programak nabarmendu ziren 2022an:

- **Enpresen erreleboa eta eskualdatzea** sustatzea (“Enpresak eskualdatzea”, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarena, eta “Jarraipena”, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunea Departamentuarena).
- **Ekonomia zirkularra** sustatzea (“Ekonomia zirkularra”), **ekonomia sortzailea** sustatzea (“Ekonomia Sortzailea”) edo **gizarteko balio partekatua** sortzea (“Garapen Jasangarria”); programa horiek guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunekeo Departamentuarenak dira.

Nabarmendu behar da Ekintzailetzaren euskal sistemak, bere **sarbide-puntu**en bidez (BICak, Merkataritza Ganberak, autoenplegurako sarbide-puntuaren sarea, Tknika sarea, udalak, garapen-agentziak, etab.), **2022an 6.649 kontsulta jaso zituela guztira; 3.400 proiektutan eskaini zuen aholkularitza eta 2.217 bideragarritasun-plan egiten lagundu zuen.**

6. ardatza: Jardueraren eta inaktuaren adierazleak

JARDUERAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
Eragile publikoen bidez egindako kontsulten kopurua.	8.133	8.549	7.459*	7.092	5.838	6.349	6.649
Eragile publikoen aholkularitza jaso duten proiektuen kopurua.	4.392	4.588	4.391*	4.473	3.355	3.563	3.400
Eragile publikoen laguntzaz egindako bideragarritasun-planen kopurua.	3.133	3.097	3.180	2.909	2.264	2.181	2.217
Hazkundera eta lehiakortasuna bultzatzen duten jardueren kopurua	30	27*	28*	29*	37*	45*	50*
Espainian enpresa bat modu indibidualean altan emateko behar diren egunen kopurua (Munduko Bankua)	16	13	13	13	Data argitaratzearen zain		
INPAKTUAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
Duela urtebete aholkularitza jaso ondoren sortutako enpresen kopurua eta urtebeteren buruan martxan jarraitzen duten enpresen kopurua, enpresak eta autonomoak berezita.	Enpresak: % 90,9 Autonomoak: % 86,1	Enpresa: % 93 Autonomoak: % 89	Enpresa: % 96 Autonomoak: % 87,6	*Enpresa: % 98,4 Autonomoak: % 84,9	*Enpresa: % 93 Autonomoak: % 88,6	Enpresa: % 93,2 Autonomoak: % 88,6	Enpresa: % 94,39 Autonomoak: % 88,90
Duela 3 urte aholkularitza jaso ondoren sortutako enpresen kopurua eta 3 urteren buruan martxan jarraitzen duten enpresen kopurua, enpresak eta autonomoak berezita.	Enpresak: % 85,0 Autonomoak: % 74,6	Enpresa: % 78 Autonomoak: % 80	Enpresa: % 88,4 Autonomoak: % 79	*Enpresa: % 88,6 Autonomoak: % 71,2	*Enpresa: % 81,3 Autonomoak: % 81,6	Enpresa: % 85,9 Autonomoak: % 85,8	Enpresa: % 80,15 Autonomoak: % 67,21
Finkatutako enpresen jabeak diren herritarren % (soldaten ordainketa 42 hilabetetik gorako tartean) (GEM)	% 7,0	% 5,6	% 5,8	% 7,6	% 5,8	% 5,2	GEM EAE berria argitaratzearen zain

*Datu doitua Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE, Munduko Bankua

2022ko ekintza nabarmenak	Eragilea
Autoenplegua	Bizkaiko Foru Aldundia, Enplegua
Ekarpena eta BEAZ hitzarmena	Bizkaiko Foru Aldundia, Ekonomiaren Sustapena
TXEKINTEK	Gipuzkoako Foru Aldundia – Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Departamentua
Ekin Araban	Arabako Foru Aldundia, Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Demografia Erronka

Azkenik, **tokiko esparruan**, Euskadiko udalek eta tokiko agentziek sustatutako 54 ekintza kokatzen dira laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programen ardatzaren barruan. Zentzu horretan, garrantzi handieneko hirugarren ardatza da, eta nabarmentzekoa da 2024ko EEPan aurreikusitako egitasmoak baino % 6 gehiago garatu direla.

7. ardatza. Zerga-sistema eta araudi erraztaileak

Helburu estrategikoa: Tresna fiskalak eta arau-tresnak eguneratzea ekintzaitza-lanari oztupoak kentzeko, eta hala, Euskadi, garapen fiskalean eta araudi-garapenean erreferente bihurtzeko.

Funtsezko adierazleak:

2022an ekintzaitza eta haren ekosistema sustatzearekin lotutako hainbat neurri fiskal indartu dira Euskadin.

Hala, **ekintzaitzari laguntzeko fiskalitatea eta araudia eguneratzeko eta berritzeko** Euskadiko Foru Aldundiek azken urteetan egindako ahalegin jarraitua agerian geratu da oraingoan ere, 2022an txertatutako arau-aldaketetan (ikusi xehetasunak hurrengo orrialdean).

Nolanahi ere, aipatu behar da fiskalitatean eta araudian aldaketak egiteko egin diren lanen izaera ez dela islatzen 2024ko EEPren ohiko aurrekontuan eta balantzearen urteko txostenetan.

Azkenik, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak egindako ikerketa baten kalkuluen arabera, **ekintzaitzarekin zuzenean lotzen diren eta Euskadiko Ogasunek PFEZ eta Sozietateen gaineko Zergetan ezartzen dituzten kenkariak, salbuespenek eta gainerako neurri fiskalek 35 milioi euroko gastua** izan zuten guztira 2021ean (eskuragarri dagoen azken ikerketako datuak).

7. ardatza: Jardueraren adierazleak

JARDUERAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
EAEEn ekintzaitzari laguntzeko eguneratutako arauen edo arau berrien kopurua (fiskalak edo ekintzaitzaren ekosistemari laguntzen dioten beste arlo batzuetakoak)	<i>2017an definitutako adierazle berria</i>	3	3	1	5	2	5

Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak

2022ko berrikuntza fiskalak

Honako hauek izan dira **2022an ekintzailtzari laguntzeko hiru Lurralde Historikoetan onartutako aldaketa fiskalak:**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan:

- Araban eta Gipuzkoan, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako indarraldiarekin, langileek entitateak eratzegatikoen kenkaria hazi egin da, izaera iraunkorrarekin. Kenkaria % 10etik % 15era igo da gizonen kasuan, eta % 15etik % 20ra emakumeen kasuan. Kenkariaren urteko muga 1.200 €-koa da gizonen kasuan, eta 1.800 €-koa emakumeen kasuan. Eta 6.000 €-ra eta 8.000 €-ra hedatu da, hurrenez hurren, zergaldietan zehar aplikatu beharreko muga.

Sozietateen gaineko Zerga.

- Araban eta Bizkaian, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako indarraldiarekin (Gipuzkoan 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina), Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauetan % 10etik % 15era igo da neurriari zuzenean lotutako zailtasunengatikoen zerga-konpentsazioa, mikroenpresentzat aurreikusia. 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldiei bakarrik aplikatuko zaie aurreko paragrafoan xedatutakoa.
- Araban, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako indarraldiarekin (Bizkaian 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina), % 60tik % 65era igo da Ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera indartzeko erreserba berezira bideratutako zenbateko murrizgarria.

2022ko araudi arloko berrikuntzak

2024ko EEPan aurreratu bezala, Sortzen ari diren enpresen ekosistema sustatzeko abenduaren 21eko 28/2022 Legea onartu zuten 2022an (zortzi Ministerioren parte-hartzearekin).


8. ardatza. Azpiegitura adimendunak

Helburu estrategikoa: Proiektu berriak sortzen, ontzen, hazten eta finkatzen lagunduko duten azpiegitura adimendunak izatea.

Funtsezko adierazleak:

2022an, 8. ardatzean ("Azpiegitura adimendunak"), **onartutako aurrekontua baino % 49,2 handiagoa** izan zen esleitutako aurrekontua. Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak aurreratu egin zituen Ekintzaitzarako Nazioarteko Zentroan aurreikusitako lanak, eta, batez ere, horregatik izan zen handiagoa esleitutako aurrekontua.

8. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2022



Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak

Haien egitasmoak garatzen lagunduko dieten lehen mailako azpiegituren eta zerbitzuen sarea pertsona eta proiektu ekintzaileen eskura jartzeko Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, udalek eta garapen-agentziek egindako aurrekontu-ahalegina islatzen du ardatz honek.

Euskadiko BICen sarearen ahalegina nabarmendu behar da, enpresa berrien inkubazioa eta azelerazioa erraztu baitu, azpiegituraren osagarriak diren zerbitzuen multzoa eskainiz. Halaber, 2022an, **Ekintzaitzarako Nazioarteko Zentroa (B Accelerator Tower)** jarri zuen martxan Bizkaiko Foru Aldundiak, ekintzaitzara-proiektuak erakartzera eta azeleratzera bideratutako nazioarteko erreferentzia-egitura. Aurreratu egin zituzten eraikineko solairu berriak egokitzeko eta martxan jartzeko lanak (11 milioi eurokotik gorako aurrekontua aurreratu zuten 2022ra), eta horrek azaltzen du ardatz honetarako onartutako aurrekontuaren eta esleitutako aurrekontuaren arteko aldea.

2022an, **193 enpresa inkubatu ziren** inkubazioan laguntzeko azpiegitura publiko nagusietan. Urtean, batez beste, **51 enpresa berri izan ziren azpiegiturretan eta 50 enpresak utzi zituzten azpiegiturak**. Horrek erakusten du azpiegitura horietako txandaketa.

8. ardatza: Jardueraren adierazleak

JARDUERAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
Inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusiek inkubatutako enpresen kopurua**		151**	123**	120**	117**	142**	193**
Urtean zehar inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusiek hartutako enpresa berrien kopurua.	2017an definitutako adierazle berria	35	32*	38	15	45	51
Urtean zehar inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusiak uzten dituzten enpresen kopurua.		33	24*	20	26	17	50

*Datu doituak Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak. **Adierazle hau berrikuspen-prozesuan dago.

2022KO EKINTZA NABARMENAK	Eragilea
Ekintzaitzarako Nazioarteko Zentroa (BAT)	Bizkaiko Foru Aldundia, Ekonomiaren Sustapena
Espezializatutako inkubategien sarea / CEIS. BICak	DDESMA, EJ
Hirekin	Mondragon Unibertsitatea

2022an, azpiegitura adimendunekin lotutako 32 ekintza garatu zituzten udalek eta tokiko agentziek (guztizkoaren % 10).

9. ardatza. Posizionamendua eta ekosistema indartzea

Helburu estrategikoa: Euskadi “ekintzailtzarako leku egoki” gisa posizionatzea bertako herritarren artean eta Estatuko nahiz nazioarteko beste ingurune batzuetan, eta gero eta laguntza-ekosistema osatuagoa, aktiboagoa, sinergikoagoa eta ezagunagoa izatea.


Funtsezko adierazleak:

EEPko bederatzi ardatzetatik aurrekontu txikieneko ardatza da, ekosistema indartzeko eta ekosistema nazioartean sustatzeko jardueren izaera dela-eta. 2022an ardatz honetarako onartutako aurrekontuaren % 94,48 esleitu zen.

Gainera, aipatu behar da beste ardatz batzuetan sartuta dauden ekintza askok ekarpen zuzena edo zeharkakoa egiten diotela ardatz honi. Euskaditik kanpo duten ikusgarritasunagatik eta

eraginagatik, **BIND 4.0 ekimena, Ekintzailtzarako Nazioarteko Zentroa (B Accelerator Tower)** martxan jarri izana edo **Euskal Ekosistemaren Mapa berria (Up! Euskadi)** kaleratu izana nabarmendu ditzakegu; ekosistemaren eta bertan parte hartzen duten eragileen ikuspegi xehea eskaintzen duen plataforma interaktiboa da azken hori.

9. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2022



Iturria: EEPan parte hartu duten eragile publikoak

9. ardatza: Jardueraren adierazleak

JARDUERAREN adierazleak	13-16 batezbesteko neurketa	2017ko neurketa	2018ko neurketa	2019ko neurketa	2020ko neurketa	2021eko neurketa	2022ko neurketa
Euskadiko Ekintzailtzaren Erakundearteko Planaren testuinguruan egindako erakundearteko bileren kopurua.	17	34	14	16	10	14	10

2022KO EKINTZA NABARMENAK	Eragilea
Ekintzailtzaren bilakaeraren azterketa- GEM	Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta Foru Aldundiak
Ekosistema ekintzailea	Gipuzkoako Foru Aldundia – Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Departamentua
Adimen Lehiakorra	Lanbide Heziketako Sailburuordetza EJ

Azkenik, **tokiko mailan**, ekosistema ekintzailea posizionatzera eta indartzera bideratutako 10 ekintza garatu dira.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

